

Hezkuntza Bereziko Hezitzaileak

- Hezkuntza Laguntzako Espezialistak
- Terapeuta Okupazionalak
- Fisioterapeutak
- Transkriptoreak
- Zeinu Hizkuntzako Interpretak
- Gizarte Langileak

- > Lanaldia eta oparraldia
- > Ordezkoak: birbaremazioa, zerrenden kudeaketa...
- > Kontratu motak
- > Lizentziak eta baimenak
- > Haurdunaldia
- > Erretiro partziala
- > Lan istripuak



www.steilas.eus

Lanaldia eta oporraldia

Lan baldintzak arautzen dituzten idatziak

Lan hitzarmena: Lan legepeko irakasle eta hezitzaileen 2003ko hitzarmen kolektiboa.

Ikasturte hasierako jarraibideak: urtero, irailean ateratzen dituzte.

Non aurkitu?

www.steilas.eus

hitzarmenak atalaren barruan,
EAE lan legepekoak.

Hezkuntza laguntzako espezialistak

Lanaldia

Urtean gehienez 1.480 ordu. Egunean asko jota 9 ordu egin daitezke (*Langileen Estatutuaren arabera*), bazkaltzeko denbora barne (45+15 minutuak konputatu).

Koordinaziorako eta materiala prestatzeko 10 ordu hilabetean (jardun osoan), partzialetan proportzionalki banatuko dira (jardun erdian 5 ordu, esaterako).

Bazkalorduari erreferentzia eginez, 45 minutu bermatuko dira bazkaltzeko jardun osoetan (ordu osozat konputatuko da) baldin eta langileak jantokian (leku fisikoa) lan egiten bada. Denbora horretan ez dago ikastetxean geratzeko beharrik. Eskolako jantokia erabiltzen bada, Administrazioak bazkariaren kostua ordainduko du. Doako janarirako eskubidea hezkuntza premia bereziak dituen ikasle bakoitzeko hezkuntza laguntzako espezialista batek soilik izango du (*eskola jantokien funtzionamendurako jarraibideak ematen dituen zirkularra*). Jardun erdiko langileentzat, 22,5 minutu bermatuko dira eta 30 minutu bezala konputatu (jantokian lan egitea tokatzen bazaio, betiere). Jardun erdiko kasuetan, ezingo da bazkalordua sartzeko edota irteteko orduekin kointziditu.

Bazkaltzeko denbora izango da 12:00tik 15:00ak arte (*egutegia eta ordutegia egiteko jarraibideak*).

Bi ikastetxe ezberdinetan lan egiten bada, egutegia asteko lanaldiaren dedikazio handiena ematen duen ikastetxearena izango da (*hezkuntza-laguntzako espezialistentzako jarraibideak*).

Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko derrigortasunik ez dago (*lan legepeko Hezitzaile eta Irakasleen 52. Batzorde Parekideko aktan*).

Hauspoa proiektuan parte hartzeko derrigortasunik ez dago (proiektu hau institutu batzuetan bakarrik dago, goizetan ordu lektibo guztiak eta arratsalde nahi duten ikasleentzako ekintzak daude).

Lanaldi partzialetan, lanaldia jarraian egin behar da, hasteko eta bukatzeko orduen tartean ezin da hutsunerik egon (*12. Batzorde Parekidea, 2006ko uztailaren 14an*).

Garraioa egiten denean, lanaldia ikastetxean hasteko eskubidea dago. Bertatik ikasleak garraioa hartzen duen geltokirainoko desplazamenduaren denbora konputatuz, baita ondoren zentzura ikaslearekin egindako desplazamendua ere. Jardunaren bukaeran kontrakoa ere konputatzen da. Oso garrantzitsua: ordutegian konputatzen den denbora, praktikan betetzea.

Zerbitzuagatiko desplazamenduak: lanaldiaren joan-etorrietan ez da derrigorrezkoa gure kotxe propioa erabiltzea (lan zama handiagotzea dela eta, gure egutegia ahalik eta gehien estutzen saiatzen dira eta, batzutan, langilea ikastetxe batetik bestera denborarik laburrenean joateko bere kotxearekin egiteko eskatzen zaio). Garraio publikoaren erabilpena eskatzeko eskubidea dugu.

Lanaldia eta oporraldia

Fisioterapeutak, zeinu hizkuntzako interpreteak, terapeuta okupazionalak, transkriptoreak, gizarte langileak

Lanaldia

Urtean gehienez 1.462 ordu. Asteko lanaldia, irakasleen antzeko dedikazioa, hau da, astean 30 orduko lanaldia. Hauetatik gehienez 23 ordu arreta zuzenekoak.

Egutegia erreferentziako zentro publikoarena izango da. Erreferentziako zentrotzat joko da asteko lanaldiaren ehuneko handiena ematen dena.

Lanaldi partzialak: lanaldia jarraian egin behar da, hasteko eta bukatzeko orduen tartean ezin da hutsunerik egon. (12. Batzorde Parekidea, 2006ko uztailaren 14an).

Zerbitzuagatiko desplazamenduak: lanaldiaren joan-etorrietan ez da derrigorrezkoa kotxe propioa erabiltzea. Garraio publikoa erabiltzeko eskubidea dugu.

Indemnizazioa: joan-etorri guztiak ordainduko dira. Berritzegunea izango da erreferentziako zentroa indemnizazio hauek kalkulatzeko. Araban aldiz, bakoitzaren jatorrizko zentroa. Lehen edo azken desplazamenduetan, ohiko helbidetik distantzia txikiagoa badago erreferentzia zentrotik baino, orduan ohiko helbidetik kontatuko dira kilometroak. 2 kilometro baino gutxiagoko desplazamenduetan ez da indemnizaziorik emango. Asteko programazioan zerbitzuak ikastetxe bakarrean ematen diren egunak badaude, asteko gehienez, bi egunetako desplazamenduak ordainduko dira. (2014ko urriaren 24ko Parekidean adostutako akordioa).

Denboraren konputua: ados ez bagaude ere, azken ikasturteetan ikasturte hasierako jarraibideetan argi jartzen du lehen desplazamenduko denborak ez duela konputatzen "fisioterapiako personal espezialistak ikasleei eman beharreko arretari hasiera ematen dion ikastetxean HASIKO DU LANALDIA". Azken desplazamenduari buruz, aldiz, ez du ezer jartzen, beraz konputatu behar dela ulertzen dugu, hau da, azken ikastetxetik erreferentzia zentrorra. Kasu honetan jatorrizko zentroa egutegia jartzeko kontuan izan dena izango da, asteko lanaldiaren ehuneko handiena ematen den zentro publikoa.

Erreferentziako zentroa: egutegiaren eta desplazamenduen denboraren konputua kalkulatzeko, asteko lanaldiaren ehuneko handiena ematen duen zentro publikoa erabiliko da. Kilometroen konputua kalkulatzeko berriz, Arabaren kasuan aipatutako berdina da, baina beste kasuetan Berritzegunea izango da. Asteko lanaldiaren ehuneko handiena ematen den zentro publikoa Berritzegunea bada, bi kasuetarako erreferentzia zentroak bat egiten dute.

Oporraldia

Urte oso bakoitzeko, finko eta bakantedun langileek 45 egun natural, abuztuan eta dagozkion uztailleko egunetan hartu beharko dituzte (etenik gabe). Epe horretan, erditzea, gaixotasuna edo istripua gertatzen badira, 30 eguneko oporraldia hartzeko eskubidea izango dute.

Ordezkoak: birbaremazioa, zerrenden kudeaketa...

Birbaremazioa

Urtero apirila-maiatzean **ordezkoen zerrendak gaurkotzen dira**. Epe horretan irakasle.net-en bidez zerbitzu-orria kontsultatu eta zure datuak zuzenak direla egiazta dezakezu, puntu kopurua barne, eta zure lan-aukerak ere alda ditzakezu.

Zerbitzuak: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden hezkuntza bereziko laneko kolektiboetan **puntu bat hilabeteko**. Jardun partzialek jardun osoek bezala puntuatzen dute.

Baimendutako beste ikastetxe publiko edo pribatu batzuetan, 0,5 puntu hilabeteko.

Puntu berdinak dituzten langileen arteko lehentasuna finkatzeko, urtero zozketa baten bidez ateratako hizki bat aplikatuz gauzatzen da. **2017-2018 ikasturteko hizkia "K" izan da.**

Ordezkapenak

Ordezkapen bat egiteko deia jasotzen duenak **eskaintzari uko egiten badio arrazoirik gabe, zerrendatik kanpo geldituko da**. Zerrendan mantenduko litzateke bidezko arrazoirik baldin balego, eta betiere, behar bezala dokumentatzen bada.

Uko egiteko balizko arrazoiak: 5 eguneko epea izango du dagozkion egiaztagiriak aurkezteko. Lan hitzarmenean agertzen direnez gain, honakoak daude:

- > **Suspensión transitoria:** 3 urte baino gutxiagoko seme-alaben zaintzagatik eskainitako ordezkapenari uko egitea baimendua dago, zerrendan mantenduz eta ordezkapenari **dagozkion puntuak jasoz**.
- > **Ohiko etxebizitzatik 50 km baino haratagoko lanpostu partzialesi uko egin daiteke** (2014ko uztailak 9ko parekidean sinatutako akordioa).
- > **Lan istripuagatik aldi baterako ezintasuna, gaixotasun profesionala eta amatasun, adopzio eta harrera egoeran dauden langileak.** Kasu hauetan, eskaini zaien ordezkapeneko denbora zerbitzu gisa zenbatuko da, baina ordezkapenak egiteko hautagaien zerrenden baremoari begira soilik. Ez du eraginik izango "antzinatasuna" deritzon ordainsari-osagarri ez eta gizarte segurantzari begira, ez delako benetako zerbitzurik eman.
- > **Amatasuna, adopzioa eta harrera dela eta, uko egin duen pertsonari ordezkatze plaza hautatzeko aukera emango zaio, bai ikasturtearen hasieran, bai IRALeren bigarren txanda adjudikatzean.** Modu horretan, amatasuna bukatu eta gero plaza horretara inkorporatu ahal izango da (horretarako ordezkapenak amatasunak baino gehiago iraun behar du).

Hautagai batek ordezkapen bat burutu badu eta bost irakastegun igaro aurretik langile bera ordezkatzeko beharra berriro sortzen bada, nahiz eta beste hautagai batzuek puntu gehiago izan, ordura arte lan hori egiten jardun duen hautagaiak izango du lehentasuna ordezkapen hori egiteko.

Ordezko batek lanaldi osoko ordezkapena betetzen badu eta plaza horren titularrak lanera bueltatzean lanaldia murrizten badu, ordezkoak lanpostu horretan jarrai dezake titularraren murrizketa hori betetzen. Ordezko batek lanaldi murriztua betetzen badu eta lanpostu horren lanaldia osoa izatera pasatzen bada, ordezko berari eskeiniko diote nahiz eta ez eduki puntuaziorik altuena.

Ordezkoak: birbaremazioa, zerrenden kudeaketa...

Hirurtekoak

ADI!! Ordezkoek hirurteko guztiak eskatu behar dituzte, ez soilik lehenengoa (finkoen kasuan gertatzen den bezala).

Langabeziko prestazioa kobratzea

Lan gabe geratzen bazara edo/eta derrigorrez jardunaldi murriztuko lanpostua betetzen baduzu, paraa kobra dezakezu azken 6 urteetan 360 egun kotizatu badituzu. Kontuz epeekin, kontratua amaitu ondoren 15 egunetako epea daukazu eskaera egiteko.

Egoera bereziak

Amatasuna: amatasun lizentzia lanean zaudela hartzen eta bukatzen baduzu, 18 asteko lizentzia izango duzu; horietatik 16 aste Gizarte Segurantzak ordaintzen ditu eta gainerako biak Eusko Jaurlaritzak. Zure kontratua lizentzia amaitu baino lehen bukatzen bada edota eten bat badu, egun bakarrekoa bada ere, Gizarte Segurantzako 16 asteak baino ez dituzu kobratuko, baina gainontzeko bi asteak disfrutatzeke aukera izango duzu.


Lan istripua, lanbide gaixotasuna, amatasun lizentzia edota haurdunaldi arriskutsua: ikasturte hasierako esleipenetan lanpostua har dezakezu eta lizentzia bukatzean kontratua egingo dizute. Puntuak, berriz, lehenengo egunetik emango dizkizute.

Lanean ez bazaude eta ordezkapen berri bat eskaintzen badizute, uko egin diezaiokezu eta ukorik egin ez bazenu bezala deituko zaituzte. Kasu horretan, eskainitako ordezkapen egunek, puntuak pilatzeko balio dute, baina ez dira kontuan hartuko antzinatasunerako, esaterako.

Alta hartu edo lizentzia bukatu ondoren lanerako prest zaudela jakinarazi behar zaio lurralde-ordezkaritzetako bati (10 egunetako epean). Hori egin ezean, zerrendetatik botako zaituzte.

Gaixotasun arrunta: esleipenean bakante bat hartu ahal izateko, altan egon behar zara ikasturteko lehenengo egunean.

Bajan egonda kontratua amaitzen da. Zer gertatzen da?



Kontratu motak

Finkoak

- > Oposizio bidez (LEP)
- > Berritzegunez aldatzeko ⇨ lekualdatze lehiaketak (martxoan-apirilean)
- > Ikastetxea aukeratzeko ⇨ Berritzeguneko esleipenak (ekainean)

LEP arteko kontratu mugagabeak

- > Mota berria (2017ko abuztutik)
- > Oposizio (LEP) edo lekualdatze lehiaketa bidez finko batek lanpostu hori bete arte
- > Ikastetxea aukeratzeko ⇨ Berritzeguneko esleipenak (ekainean, finkoak eta gero)

Lan edo zerbitzu jakineko kontratua

- > Orain arte "bakanteak" zirenak
- > Irailaren 1etik abuztuaren 31ra arte, kontratua abuztuko esleipenean edo irailean zehar gauzatzen bada. Urritik aurrera gauzatuz gero ekainaren 30ra arteko iraupena izango du
- > Ikastetxea aukeratzeko ⇨ abuztuko esleipenak

Errelebo kontratua

- > Jubilazio partzialaren ondorioz sortutakoa
- > 4 urteko iraupena

Ordezkoak

- > Jardunaldiaren %75ko lana
- > Hau hartzeko, langabezian egon behar da

Titularrak

- > Jardunaldiaren %25ko lana (noiz egin aukeratzeko eskubidea)


Ordezkapen arrunten kontratua

- > Telefonoz eskaintzen dira
- > Lanpostuaren titularra bueltatu arte

Erretiro partziala errelebo kontratuarekin

Lan kontratua daukaten langileek, erretiro partziala har dezakete, eta beraien jardura murriztu, ohiko erretiroa hartzeko legezko adina bete arte. Horren ondorioz, txandakako kontratu bat egiten zaio beste norbaiti, lanaldi murriztua osatzeko asmotan; eta erretiro partzialaren iraupena izango du txandakako kontratu honek ere.

Nahiz eta 5/2013 Errege-Dekretuak erretiro-eredu hori hartu ahal izateko baldintzak aldatu eta gogortu egin zituen, honako langile hauei lehenagoko baldintzak aplikatzen zaizkie: 2018ko urtarrilaren 31ra arte EAEko langile finkoen ERRETIRO PARTZIALEKO PLANera atxikita dauden langileei. Hori horrela, langilearen egoeraren arabera erretiro partzialeko bi eredu bereizten dira.



Jubilazioak EAE

Gertaera eragilearen urtea	Gertaera eragilearen urtean kotizatutako urteen arabera eskatzen den adina		Gertaera eragilearen urtean 33 urteko kotizazioa izanez gero eskatzen den adina
2017	61 eta 5 hilabete	34 urte eta 3 hilabete edo gehiago	61 eta 10 hilabete
2018	61 eta 6 hilabete	34 urte eta 6 hilabete edo gehiago	62 urte
2019	61 eta 8 hilabete	34 urte eta 9 hilabete edo gehiago	62 eta 4 hilabete
2020	61 eta 10 hilabete	35 urte edo gehiago	62 eta 8 hilabete
2021	62 urte	35 urte eta 3 hilabete edo gehiago	63 urte
2022	62 eta 2 hilabete	35 urte eta 6 hilabete edo gehiago	63 eta 4 hilabete
2023	62 eta 4 hilabete	36 urte eta 9 hilabete edo gehiago	63 eta 8 hilabete
2024	62 eta 6 hilabete	36 urte edo gehiago	64 urte
2025	62 eta 8 hilabete	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago	64 eta 4 hilabete
2026	62 eta 10 hilabete	35 urte eta 3 hilabete edo gehiago	64 eta 8 hilabete
2027 eta hortik aurrera	63 urte	35 urte eta 6 hilabete	65 urte

Lizentziak, baimenak eta eszedentziak


Lizentzia, baimena edo eszedentzia	Art.	Nork	Iraunaldia	€
Istripu edo gaixotasuna	19	FBO	Medikuak alta eman arte (18 hilabeteko muga) edo kontratuaren amaiera arte.	Bai
Amatasuna eta erditzea	20	FBO (1)	18 aste +2 jaioberriak ezgaitasun baten bat izanez gero edo erditze multipleetan seme-alaba bakoitzeko. Jaioberria ospitalean egonez gero luzatzen da.	Bai
Adopzioa edo harrera	22	FBO	Aurrekoaren antzekoa. Nazioartekoa bada, bidaia egiteko 2 hilabete arteko baimena.	Bai
Edoskitzea	20	FBO	Egunero ordu bat, haurrak 12 hilabete izan arte. 6 ordu = egun bat ere meta daitezke.	Bai
Aitatasuna	21	FBO	4 aste jarraian.	Bai
Ezkontza / bikotetza	23	FBO	20 egun naturalak, egun hori barne.	Bai
2. mailako senideen ezkontza	23	FBO	Egun 1 (+2 egun naturalak, 150 km-ra baino urrunago bada).	Bai
Senideen gaixotasun larria (lizentzia)	24	FBO	5 lanegun: bikotea edo seme-alaba. 2 lanegun: 2. mailara arteko senideak. (+2 egun naturalak 150 km-ra baino urrunago bada). Errepika daiteke 30egun geroago, terminala salbu.	Bai
Senideen heriotza	24	FBO	5 lanegun: bikotea edo seme-alaba. 3 lanegun: 2. mailara arteko senideak. (+2 egun natural 150 km-ra baino urrunago bada).	Bai
Nahitaezko betebeharrak	25	FBO	Behar den denbora.	Bai
Etxebizitzaz aldatzea	26	FBO	2 lanegun, erroldatu eta 15 egun naturaleko epean hartzeko.	Bai
Adingabekoak, ezgaituak edo 2. mailako senideak zaintzeko	29	FBO	Herena edo erdiaren murrizketa.	Bai %
2. mailako senideak gaixotasun kroniko edo mugitzeko arazoekin	30	FBO	50 ordu arteko baimena ikasturte bakoitzeko. Gehienez 2 ordu egunean, lanaldi hasieran edo bukaeran. (Zentruko zuzendaritzaren esku).	Bai
1.mailako senideen gaixotasun larria (baimena)	(2)	FBO	Herena edo erdiaren murrizketa (hilabete bat asko jota).	Bai
Ikasketak edota praktikak egitea	31	F	Luzatu ezin den ikasturte bat.	Ez
Azterketa ofizialelara aurkeztea	32	FBO	Egun natural bat (+2 egun 150 km-tara bada).	Bai
Kontsulta medikoa	33	FBO	Behar den denbora. Erditzea prestatzeko astero 4 ordu.	Bai
Norberaren eginkizunak	36	FB	Gehienez 4 hilabete 2 urtero.	Ez
Lanaldiaren borondatezko murrizketa	53	F	Herena edo erdiaren murrizketa (urtebeteko iraupena gutxienez)	Bai %
Eszedentzia berezia	54	F	6 hilabete gutxienez eta urte bat gehienez.	Ez
Urte sabatikoa	56	F	4 urtez lanean eta urte bateko baimena.	%84
Borondatezko eszedentzia	39	F	Urte bat gutxienez eta 5 urte gehienez.	Ez
Seme-alaba zaintzeko eszedentzia	39	FB	Nahi beste aldiz eten eta eskatu daiteke, umeak 3 urte bete arte.	Ez
Senidea zaintzeko eszedentzia	39	F	Urte bat gehienez.	Ez

F: Langile finkoak (1) Ordezkoa bazara eta ordezkapena bukatzen bazaizu, 16 aste.

B: Bakantedunak (2) Mahai Orokorreko akordioa.

O: Langile ordezkoak.

Odol-ahaidetasunaren organigrama



Oharrak

1. Istripu edo gaixotasunagatik lizentzia: nahiz eta lan hitzarmenak lansariaren %100a kobratu behar dela esan, 2014ko urtarrilaren 30eko EHAan, Eusko Jaurlaritzak dekretu berri bat atera zuen.

Bertan baja egoeragatik kenketa hauek aplikatuko dira:

- 1. 2. eta 3. egunetan: ordainsarien -%50 gutxiago
- 4. egunetik- 20. egunera: ordainsarien -%25 gutxiago
- 21. egunetik aurrera: deskonturik ez.

Salbuespenak: haurdunaldiak, ospitaleratzeak, eba-kuntzak, lan istripuak edo lan egoerak sortutakoak.

2. Edoskitzerako etenaldia, bai jardun osoan bai jardun murriztu edo partzialean hartu ahal da.

Edoskitze metatua. Amatasun lizentzia, gehi metatutako edoskitzea bukatzean beste baimen mota bat eskatzeko asmoa badago, Delegaritzan abisatu behar da metatutako edoskitzearen eskaera horrekin batera. Hala egiten ez bada, eta beranduago horrelako eskaera bat eginez gero, disfrutatutako edoskitze aldia egokitu beharko da, eta, beraz, disfrutatutako gehiegizko egunen ordainsariak itzuli beharko dira.

3. Norberaren eginkizunetarako baimena ordaindu gabekoa da, baina gizarte segurantzian altan jarraitzen denez, ez dago aldaketarik kotizazioan. Itzultzean, hartutako egunen diruaz gain, baimenaren denboraldi horretan departamentuak gizarte segurantzian langileagatik ordaindu duena ere nominatik deskontatzen da.

4. Bateriaezintasunagatik eszedentzia: langile fin-koentzat da. Baimen honek ez du suposatzen bere lanpostuaren erreserba, baina bai lanpostu batena.

Eszedentziaren arrazoia desagertu eta gero, hori gauzatu zuen zeregina edo zerbitzua bukatzen dene-tik 30 egun naturaleko epean langileak bere lanpos-tura berriro itzuli beharko du. Epe horretan ez bada bueltatzen behin betiko baja sorraraziko du.


Eskaera, bai eszedentziarena bai bueltatzearena, Lakuako Harreman Sindikaleko Sailera bideratuko da. Nahi beste aldiz eska daiteke eszedentzia mota hau, ez baitago mugarik.

5. Ordezkoek kontratua eten egiteko aukera. 3 urteko antzintasuna dutenak betiere, kontratua eten eta Hezkuntza departamentuko irakasle lanpostu batera joateko aukera dute zerrendetan mantenduz; eta ai-patzekoa da, ikasturte horretan berriro ere hezitzaile bezala lan egiteko aukera galtzen dela.


6. Adin txikiko seme-alabei edo beste senide batzuei kontsulta, tratamendu edo azterketa medikueta-rra joaten laguntzea espezifikoki kontuan hartzen duen lizentziarik ez dago. Dena den, arrazoi horien-gatik huts egiteko aukera dago. Horretarako, zuzen-dariari baimena eskatu beharko zaio, baita justifika-zioak aurkeztu ere. Zuzendariak hartuko du erabakia.

Haurdunaldia, amatasuna, edoskitzea eta ordaindu gabeko baimena


Haurdun




Erditzeko unea



Hemendik aurrera zer?




Egoera bereziak



Amatasuneko 16 astetarik batzuk (gehienez 10) aurreratzeko aukera aztertu, kontratu hasierarekin bat egin ez dezan umearen jaiotzak. Aitabidez Inrialak 1 can jabetza ez egiteko arriskua dagoenean.

Informazio gehiago gure egoitzetan

Lan istripuak, nola jokatu



Laneko istripua

Langilea lanean ari dela edo lanaren ondorioz jasan dezakeen edozein gorputz-lesio.

“IN ITINERE” (laneko istripuen barruan)

Istriputzat jotzen da langileak lantokirako joan-etorrietan jasan dezakeena.

Gorabehera (intzidentzia)

Edozein jardueretan aritzean eman daitekeen edozein egoera; nahiz eta momentuan lesiorik ez eragin, baina lesioak eragin ditzakeena. (Segurtasun laguntzaileari komunikatu eta erregistratzea garrantzitsua da).

Laneko istripua

Lan istripu baten ondorioz baja hartu bada, lan sariaren %100 kobratzen da.

Sektoreko aldarrikapenak

Sektore guztientzako orokorrak direnak

- Hezkuntzako inbertsioa handitzea, ezinbestekoa da kalitatea hobetzeko.
- Ratioak gutxitu: geletako ikasleen kopurua jeisteak eragina izango du h.p.b-ak dituzten ikasleengan.
- Behin behinekotasuna gutxitu.
- Lanaldi murriztuak gutxitu, osokoak handitu.
- Eros ahalmena berreskuratu.
- Erretiroa errazteko neurriak berreskuratu.
- Bajak osotasunean kobratu.

Sektoreko berriazkoak

- Hezkuntza laguntzako espezialisten asteko jarduna 35 orduetara zehaztu.
- Ordezkoen udako kobrantza.
- Fisio, Terapeuta Okupazional eta Gizarte Langileen soldaten HOMOLOGAZIOA.
- Ratioak gutxitu: hezitzaile bakoitzarena. Benetako datuen informazioa!
- Sexenioen kobraketa.
- Sektoreko lan gaixotasunak aitortu.
- Gizarte Fonda.
- Egonkortasun maila handitzea.
- LZ urtero eguneratzea.
- Oposizioak (LEPak).
- Beste lurralde batera mugitzeko aukera arautzea.
- Funtzioak birplanteatzea.
- IRALEko txandak guztiontzat.

HEZKUNTZA SAILA



www.steilas.eus

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus